

Hitzaurrea

K. MARXEN EBOLUZIOA MANIFESTU-RA ARTE

Hegelen idealismotik materialismo historikora

Joxe Azurmendi

Karl Marx 1818ko maiatzaren 5ean Treverisen jaio zen, Alemaniako Renanian; 1883ko martxoaren 14an Londresen hil zen, han hogeita hamalau urte exilioan bizi eta gero.

Gabriel Arestik «eta zu, Treveris,/benedikatua izanen zara/ munduko/ hiri guztien/ artean» poematu zuen *Euskal Harria*-n, errepika bibliko-epikoa, Mesias berri bat bezala agurtuz Marx Euskal Herri berriarentzat¹.

Gure historian 1818 Txileren independentziaren urtea da, esate baterako: esan gura baita, nazio hegoamerikarren askapen mugimendua bidean dela (1816an askatu da Argentina, 19an Bolivarrek Venezuela/Kolonbian gerra hasi du, etab.). Desegiten ari da Inperio zaharra, hots, iraganaldi «loriatsua». Eta Espainia «errestaurazio» politika erreazionari beltzenean dabil sutan, kanpoan

bezala barruan, Iragan hari eutsi nahita ideia moderno guztien aurka. Konstituzio liberala baztertu eta (1814), Inkisizioa berrezarririk, Fernando VII.aren lan nagusia ideia eta jende «frantsestia» bazter guztietan pertsegitzea da, «Espainia sakratua» salbatzeko. — 1883 jada Lore-Jokoen eta «euskaroen» garaia da gure artean, hondamen osteko «Pizkundearena» alegia, zeharo beste panorama bat (81ean hil da Iparragirre, etab.). Modernitateari buruzko borroketan Euskal Herria zanpatua geratu da (piska bat modu diferentean izan bada ere Iparraldean —Ferry!— eta Hegoaldean).

Beraz, Euskal Herrian, gerra karlisten eta Foruen galeraren epe historikoa izan da Marxen biziarteko hori; Espainian, liberalismoaren erdinagusitzeko borrokarena. Orohar Europako historian lau fenomeno nagusi nabarmendu behar da.

Ohar batzuk garaiaz orohar

1. Errestaurazioa eta Estatu nazional liberalaren ezarpena

Iraultza handiak porrot egin du. Baina Frantziako Iraultzak eta haren segidan gerra napoleonikoen, Espainiatik Errusiaraino Askapeneko edo Independentziakoak deituek, erresumak eta monarkiak adina herriak eta ideiak arras aztoratu dituzte Europa osoan. Prusiak, adibidez, hainbat erreforma sozial egin du eta beste hainbat askatasun agindu laster asko, erregeari herriaren laguntasuna ziurtatzeko tropa frantsesen aurka. Lurralde guztietan, okupatzaile frantsesen aurka gerrari ekin dion jende askok, askatasun ideia —edo gutxienez itxaropen— «frantsesekin» (iraultzaileekin) jardun dizu. Frantsesen alde nahiz aurka, askatasunaren bandera jasotzen da fronte guztietan harro. Napoleon erori orduko, alabaina, Vienako Kongresuak (1815) antzinako ordenaren «errestaurazioa» ezarri du berriro, h. d., «subiranoek iraultzaren aur-

ka elkarri laguntzeko» Europako lurkarta birreginean Austria, Errusia eta Prusiaren artean Itun edo Aliantza Santua lotu, geroxeago gainerako erresumak batu dira, «printzipio iraultzaileen» pizte oro haietako edozeinen edozein lurraldetan bertan behera itotzeko konpromezua elkar-hartuz. Ideia berriengatik frantsesen alde borrokatu direnek, ihes egin behar izan dute. Erreformen alde Napoleonen aurka borrokatu duten liberalek ere, ordea, beren Printze eta monarken aurka borrokatu beharko dute: beraiek salbatu duten Botereak pertsegitzen eta erbesteratzen ditu berak orain. Erreakzioaren eta askatasun ideien arteko gudu nahasi horrek betetzen du XIX. mende gehiena: XVIII.eko monarkien ondotik, Frantziako Iraultzaren eta gerra napoleonikoen ondotik alegia, Europako «Estatu-Nazio» moderno eta industrialak horrela joan dira finkatuz, borroka eta matxinada artean, iraultzaren arriskutik elkar zainduz eta elkarri eutsiz (oroit 1823an «San Luisen ehun mila haurren» interbentzioa Espainian), harik eta mendearen buru aldera, Nazio-Estatu —jada beren baitan aski industrial eta bortitz bilakatu— horietan beren arteko lehiak eta liskarrak jarraitu duen arte (horrela Aro Imperialistara pasatuz). Bitartean hurrengo beste bi fenomenoak gertatzen ari dira Europan aipaturiko lehen honen baitan:

2. Europako lurkarta politikoaren birrantolaketa: Nazio arazoak

Europar azkenik bakea eta ordena berriro ipintzea lortu bada ere, honez gero kontinenteko erresumen (koro historikoen) geografia politikoa ez zaio egokitzen Iraultzak eta maregora napoleonikoak noranahi barreiatu pentsamolde berriari. Botere absolutu eta sakratuen aurka, mugimendu liberal konstituzionalistak indartsuak dira edonon. Konstituzioaren ideia, herri edo nazioaren subiranaren ideia da; hots, ez erregea jaun eta jabe den erresumarena, baizik bera nagusi den herri edo nazioaren

Estatuarena, Estatu-Nazioarena. Estatu konstituzionalak Nazio bezala ulertzen du bere burua, h. d., herri subirano bat bezala. Herri batzuk subiranoak dira (Konstituzioa dute), beste batzuk oraindik ez.

Hain zuzen herriaren subiranotasun printzipio horrek, Aginpiderearen eta Estatuaren oinarria nazioa delako printzipioak, nazio batzuen independentzi (Estatu edo Konstituzio propio) gogoaz piztu du, nazio ezberdinetako jendea biltzen zuen hainbat erresumatan. Estatuak nazioa izan nahi badu, nazioak Estatu izan nahiko du. Periodo osoa «nazio-arazoz» betea dago Iparretik Hegoraino.

Independentzi bila hasi diren koloniak aparte (Ameriketako kolonia espainolak), Europako adibide batzuetara mugatuz, klasikoa da Irlandako nazio borroka latza Ingalaterraren aurka. 1829ko erreformak, kargu publikoetarako gaitasunean katolikoak eta protestanteak berdinduz, garaipenerako bide luzearen hastapena baizik ez du adierazten. Laster biztanleria katoliko osoaz jabetuz doa mugimendu demokratiko abertzalea; Armada ingelesak 1847/48an sekulako triskantzak egingo ditu, alferrik. Italian 1820an absolutismo espainolaren aurka jaiki da Napoli, Piemontea Austriaren aurka. Altxamendu hauek militarki apurtuak izango dira, baina nazionalismo italiarrak, Mazzinik «Italia gaztean» eratuta, etengabeko agitazioan jarraituko du, 1833/34, 1843, 1844, 1845eko altxamenduekin, amore emateke menpegabezia eta batasuna lortu arte (1860, 1870). Greziak 1822an bere independentzia deklaratu du, gerra gogorrari ekinez Turkiaren aurka. 1830ean Herbeheretatik menpegabe deklaratu da Belgika. Abertzale poloniarrek 1830/31, 1846, 1848, 1863an behin eta berriro entseiatu dituzte halaber altxamenduak, azkenean menpegabezia 1918an iristeko. 1842tik aurrera Hungariak orobat, Lajos Kossuthekin, Austriatik menpegabetzeko ahaleginetan ekin dio. Aldi berean, Hungariaren pean dauden kroaziar, serbiar, eslobakiar eta errumaniarren mugimendu abertzaleak pizten dira (hizkuntza magiarrak ofizialtzat ezartzeagatik asaldaturik), etab., etab.

3. Kapitalismo industrialaren hedapena eta mugimendu sozialaren indartzea

Askatasun mugimendu guztion aurka politikak iraganari desesperatuki eutsi nahi dion eta apenas ahal duen artean, beste fenomeno bat egitura sozialak sakon-sakonetik iraultzen ari da Europan: industriaketa, edo produkzio molde kapitalista, XVIII. mendearen azken aldera Ingalaterran hasi eta XIX.ean kontinentean hedatuz doana, Europa laborari gizarte feudaletik industri gizarte kapitalistara pasaraziz. Industriaketak landerriaren hustutze eta biztanleriaren hiritartzea esan nahi du; lanaren espezializazio eta berezketa, tresna eta teknika berrien aplikazioa, energi iturri berrien baliapena (ikatz, petrolioa, baporea, elektrizitatea), masifikazioa produkzioan mekanizazioaren bidez, finantza eta garraio edo komunikazio sektoreen garapena. Bere burua geroz eta azkarragotuz, industriaketa prozesuak, 1820tik aurrera Ingalaterran, Frantzian, Belgikan, 1850etik aurrera Alemanian, «iraultza industrial» ohi deritzona eragiten du. Iraultza industrialak «gizarte arazoa» («mugimendu soziala»).

Langileria industrial edo proletariaren arazoak mugimendu politiko, sozial eta intelektual ezberdinak sortarazi ditu laster, inportanteenak hasiera batean Ingalaterran eta Frantzian erne baitira. Langileriaren antolaera eta gatazka sozialaren teorizazioa dira bi eginkizun premia-tsuenak, «praxiaren» kontzeptuan biak batera daitezkeena. Antolaketa mailan Ingalaterran eman dira langileria-aren aurreneko lorpenak (mugimendu kartista, errebinkazio politikoekin, «Trade Union» edo sindikatuak, kooperatibak). Frantzian, askotan iraultzaileagoak badira ere (asmoetan bederen), erakundeak klandestinoak eta txikiak dira. Edonola ere, erakunde hauek, edo helburu erreformista konkretuetara mugatuak direlako, edo ez dutelako iraupenik lortzen, ez dira langileriaren askapenerako tresna taxuzkoak ageri. Erakunde egoki baterako, teoria egoki bat falta da. Egon, anitz teoria badago. Teoria edo

ideario sozialistak, hainbat formulazio ezberdin, justizia handirik gabe gero «utopikoa» bezala baztertuko dena, aurkitzen du garai honetan, batez ere Frantzian: Ch. Fourier eta E. Cabet, L. Blanc eta A. Blanqui, Lamennais eta Buchez edo P. Leroux, P.-J. Proudhon. Autore frantses hauen influentziak iratzarriko ditu lehenengo autore sozialista alemanak: M. Hess, Weitling, etab. Guzti hauekiko jarraitasunean eta guztiekin eztabaidan garatuko du Marxek bere pentsamendua.

4. Iraultza eskema mental gisa

Ez bakarrik iraultza-haize asko dabil ibili, baizik eguneroko errealitatea interpretatzeko ere, giza ingurua teorikoki pentsatzeko eta ezagutzeko, iraultzaren kontzeptuarekin egiten da garai honetan. Frantziako Iraultza oso hurbil dago guztientzat. 1815ean «Errestaurazioak» iraultzaurreko egoerara itzulia dekretatu duen arren, berehalaxe 1830eko eta 1848ko «iraultzek» garbi utzi dute, momentu horretan Europa bete-betean «iraultzen aroan» irakinean dabilela, Pariseko Komunara arte gutxienez. Iraultzaren mamua edo iratxoa dabil European zehar — 1848an «komunismoaren iratxoa» esango dena. Aldakuntzak nahi dituztenek bezala haien beldur itsu direnek, beti Iraultza dute ahotan erreferentzia obligatua. Ez borrokak kalifikatzeko bakarrik. Gizartearen eta historiaren interpretazioak ere —hegeldarrak bereziki— Iraultzaren eskema intelektualekin edo ereduarekin dihardu. Egoera bat, gizarte bat, bere elementuen kontraesanek ezaguarazten dute bizi eta dinamiko bezala; kontraesanok dira, beren gaindipen edo iraultzarekin («ukoaren ukoarekin»), gizartearen bilakaera edo historiaren aurrerabidea barrutik esplikatzen dutenak. Historia egiaz ibili dabilenean, haren ibilbidea iraultza bidea da. Filosofian ezezik, iraultzazko ikuspidea kultura guztian eta zientzian ere nagusitu da — geologian bertan, adibidez, geruza geologikoen

formazioak azaltzeko; baina Darwinen biologia popularizatuan batez ere. Iraultzak naturan, iraultzak batez ere historian. Iraultza kontzeptu klabe bat da. Aro honek iraultza bezala ulertzen dizu bere burua eta bere buruan gertatzen ari dena: «Iraultza industrialaz» mintzatu dira bai L. A. Blanqui eta bai F. Engels, eta A. Toynbee gero (*The industrial revolution in England*, 1884) arrunta bilakatu da gure artean XIX. mendez termino horietan mintzatzea, guretzat Iraultza —zientzian eta filosofian batik bat— erreferentzia urrunago eta esanahi lausoagokoa bada ere aspaldi. Irakurketa hermeneutikoak ezingo du ahaztu, edozein testu, bere sorguneko galdekizun eta eskema mentalek, terminoek baldintzatua dagoela.

Biografiako datu batzuk

Karl Marxen gurasoak juduak ziren. Aita abokatua zen lanbidez eta liberal moderatua pentsaeraz, Renanian burgesia eta gizarte gehiena bezala. (1794an Frantzia iraultzaileak Renania militarki okupatu eta anexatu egin zuen: Treveris, hortaz, 1814 arte Frantzia izan zen, Iraultzaren erreforma politiko eta sozialak gozatuz). Izpiritu liberal honek posible egiten zuen hiriko bizitzan eta, esate baterako, Kasinoan, problemarik gabe elkarrekin aritu ahal izatea juduak eta kristauak, burgesak eta aristokratik (Marxen familia eta L. von Westphalen, adibidez, Karlen aitaren adiskidea eta emazte izango duenaren aita).

Izpiritu liberal hau, bizitza publikoan bederen, fundituta geratu da, Vienako Kongresuak Renania Prusiari eratziki dionean. Prusiak, frantsesei gerrarako herriaren laguntza irabaztearren egindako erreforma liberalak, Napoleonen ausiabatzaekin denak atzera erretiratu ditu, 1808an juduei aitorturiko eskubide publikoak horien artean. «Arrazoimenak gobernatzen duen munduan» (Hegel), Marxen aita, abokatu gisa ezin lan egin edo bataiatu beharrean aurkitu da. Sei urte zuen Karl Marx haur ju-

duak, gizarte prusiarrean integratzearren eta asimilatzearren, aita eta amarekin bataiatu egin behar izan duenean erresumako konfesio ofizial protestantean, Treveris katolikoan hori bera minoria txiki-txiki bat besterik ez baitzen.

Lehenagotik ere Marxtarrek ahalegin handia egin dute asimilatzearren eta hiritar zintzo ereduak agertzearren. Marxen aita rabino baten semea zen eta ama ere rabino ezagunen ondorengoa. Hala ere Marxen gurasoek, erlijio eta tradizio judua utzi eta, nahiago izan dute etxean deismo razionalista gisako bat aitortu, orduko gizarte ilustratuan franko eroso uzten zituena, ezein konfesoriotu gabe. Haurrek izen kristauak izango dituzte, ez juduak. (Aitak bere bataiokoa hartu du Heinrich izen kristaua). Heinrich Marx horrek, bere pentsaeraz guztiz liberala izan arren, meneko leialenak baino leialagoa agertu nahiko du beti Prusiako Erregeari. Asimilazio borondate hau Karl Marxen eskola urteetan jarrai daiteke nabaritzen.

Unibertsitatean Hegelen (1770-1831) filosofiarekin egin du topo, «zientzia unibertsal» honetan faszinaturik aurkituz, izadian dena nola sistema batean razionalki bilduta dagoen, natura eta kultura, profetaren erlijioa, razionalistaren filosofia, jeinuaren artea, Jainkoa eta gizakia; nola dagoen unibertsoan eta batez ere gizakiaren munduan dena lotu-lotuta, Zuzenbidea, gerrak, kulturak, zientzia, politika, historiaren eta gizartearen bilakaera, morala eta giza askatasuna. Munduan ez da ezer gertatzen bere arrazoi aski gabe. Denak du bere razionalitate doi-doia, dena dago denari lotuta, denak du bere historia, xedea, bere leku eta momentu zehatza. Hegelek gauza bakoitzaren eta guztiaren razionalitate hori azaltzen du. Bat-batean, kaotikoa ematen zuen unibertsoak, guztiz irrazionala zirudien historiak, transparentzia razional guztizkoa ageri dute; eta elkarrekin zerikusirik ez zutelako ziruditen aspektuek, arkitektura perfektu bat erakusten dute. Marxek hementzeraino/hogei urte du eta —etxetik urrun orain—, Zuzen-

bide ikasketak utzirik, filosofiara pasatzen da. Abokatua izan ordez profesorea izango da — erabakitzen du berak. Jendearen arazo txikiak landu ordez, gizadiaren arazo handien araketan murgilduko da.

Kontuak gaizki atera ditu. Unibertsitateko gatzaka giroan Marx «ezkerreko hegeldar» edo «hegeldar gazteekin» lerrokatu da. Gizartean bezala, Unibertsitatean ere bi joerak, liberala eta erreakzionaria, borroka amorratuan ari dira. Bi joera horietan dago elkarri kontrajarrita Hegelen ondarea ere: batzuek —Hegel baitan— Prusiako Estatu erreakzionariaren apologia irakurtzen dute, historiaren razionalitateak hura justifikatu duelako (garaipenak); besteek —Hegel baitan orobat—, lehenengo agindu bai eta gero Konstituzioa egiteari uko egiten dion Prusiako Estatu feudal irrazionalaren kritika irakurtzen dute. Hegel bera ez dago eztabaidan oraindik.

Betiko bere inspirazio kritiko eta liberalari jarraiki, «Natur-filosofia demokritotar eta epikurotarraren arteko diferentzia» izenburuaz 1841ean tesi doktora aurkeztu eta Marx Bonnera joan da —hogeita hiru urteko—, hango Unibertsitatean profesoretza bat lortzeko uste osoz. Bonnen dago Bruno Bauer profesore arrakastatsu, hegeldar ezkertiarren buruantza Alemanian, Marxek Berlinen ezagutu eta adiskide egin duena, eta haren laguntza seguruaz kontatzen du Unibertsitatean lanbidea lortzeko. Baina orduantxe errepresio antiliberala gogorragotu egin da Prusian. B. Bauer-i debekatu egin zaio bere ikastaroa ematea; Köppen eta Rutenberg, Marxen beste adiskideak, polizia begiradapean daude. Unibertsitatean lan egin ahal izateko Marxen itxaropen guztiak pikutara doaz.

Erljiioaren kritikatik estatu liberalaren kritikara

Marxen egoera pertsonala larriagotzen duen beste zirkustantzia bat, Lizeoko urteetatik jada Jenny von

Westphalen pertsonalitate harrigarriko neskatzarekin isilpean hitzemanda dagoela da, eta orain («zazpi urteko ezkongaitzaren» ondoren) ezkondu egin nahi dutela. Biak familia liberalekoak dira, baina liberalismoak mugak izaten ditu. Hori ongi dakitelako, berandu arte biek nahiago izan dute familiei beren maitasuna ezkutatu. Moral burgesaren estukeriagatik eta aurreiritziengatik berak eta bere andregaiak zenbat sofritu behar izan duten, gogoratuko du geroago Marxek Rugeri gutun batean. Ezkontza burgesaz Manifestuan irakurtzen den balioespen mesprezuzko soila, partziala bada ere zalantza gabe, ez da oinarririk gabekoa.

Ezkondu eta familia bat jaso ahal izateko, Marxek pozik hartu du *Politika, Komertzio eta Industriako Kazeta Renaniarra* (*Rheinische Zeitung*) liberal sortuberrian, aurrena lankide eta gero Zuzendari gisa Kolonian eskaintzen zitzaion lana. Kazeta hau Renaniako burgesia liberal kritikoena, Prusiako erregimenarekin deskontentuenak, eusten zuen.

Garai hartako lurkarta politikoaz ez ahaztea komeniko da. Izan ere, Alemania, joera daukagu Estatu bat bezala egina eta beti berdina iruditzekoa. Baina aski berria da hori. Frantziako Iraultzaren (eta tropa iraultzaile frantsesen okupazioaren) bezperan, Alemania deitzen dugun hori —propioki Nazio Germaniarreko Inperio Erromatarra— 314 Estatu edo eskualde berjabetan zegoen zatikaturra. Prusia eta Austria Estatu boteretsuenen aurrez aurre, txikiagoek hainbat itun eginez jokatu ohi zuten, beren artean elkarri eusteko. Halakoa zen «Konfederazio Renaniarra», Rineko hamasei eskualde berjaberaren elkartasuna, Prusiarri eta Austriari aurre egiteko Frantziaren protektoratuan babesten zena. Hain zuzen Konfederazio horrek eskaini dizkion plaza eta soldaduetan aurkituko du Napoleonek abia eta berme-puntua, Erteuropan oinak sendo finkaturik, Ipar-ekian Prusia eta Hego-ekian Austria biak porrokatzeko. Alemania okupatu eta (haren soldadu asko eta asko alemanak dira) Napoleonek berehalaxe egingo duen gauza

bat, lurkarta politiko zahar hori zeharo birrantolatzea izango da, eskualde subirano edo Estatuak 39tara murriztuz. Vienako Kongresuak, teoriarik erregimen zaharra osoki errestituratu behar bazuen ere, Napoleonen birrantolaketa politikoa funtsean errespetatu egin du. Bakarrik Renania Prusiar probintzia bezala eman dio. Prusia feudaleko lege gogorren pean geratu da Renania gehienbat katoliko, osoki liberal eta Prusia baino aberatsagoa! Eta alferrik izango dira haren oposizioa («separatismo» edo autonomismoa) eta aspaldiko antipatia guztia Prusiarekiko.

Hemendik aurrera —batasuna egin arte— esan daiteke Alemanian zinez bi arazo nagusitan laburbiltzen dela «nazio-arazoa»: askatasun berrien aitortza publikoan (Konstituzio liberalean) eta merkatuaren batasunean. Estatu txiki pila hori hizkuntza, lurralde, tradizio historiko, kultura (literatura, musika), etab., etab., batekoa da dena. Alde horretatik ez da egon inolako arazorik —beraz, nazio-arazoak diharduenean, arazorik ez diren alde horiek denak, apenas aintzat hartuko ditu Marxek. Arazo handia (1) 39 Estatu menpegabeen mosaiko horretan, ekonomiak jada eskatzen zuen aduana batasuna lortzea da, gehienetan Erdi Arotik heredaturiko aduanek —ibaletan, bide eta hirietan, konterrietan— irauten baitzuten. Esate baterako, Renaniako probintziak aduanak zeuzkan Prusiarra saldu ahal izateko, Estatuaren barruan bertan! (Lehentxeago Frantziako merkatu zabala irekita eduki duten Rin eta Moselako ardo produktoreak, ulertzen da mukertzea). De fakto Alemaniako batasuna, poliki-poliki, orain Europako batasuna eginez doan oso antzera, 39 Estatu haien «aduanen batasunaz» joan da egiten («Zollverein»). Hortik izkimizkia, Alemaniako batasuna tabakoak egin zuela, ez politikoei. Beste arazo handia Alemania guztian (2) konstituzionalista izan da, hots, botere feudal edo Erregimen Zaharreko Gobernu handi ala txiki guztion modernizazioarena. Horregatik liberalen atentatuz (Kotzebueren asasinatzea), estudianteen barrikadaz, matxinadaz eta fiaskoz beteta dago Alemaniako XIX. mendea ere. Eta, beraz,

oso garbi dago, nazio-arazoa zentzu honetan burgesiarena izan dela funtsean Alemanian. Manifestuan nazio arazoak adierazten dena behar bezala balioesten jakiteko, irakurleak gogoan izan beharko du hori².

Kazetaren zuzendaritzak bere lehenengo esperientzia egiaz politiko gordina esan nahiko du Marxentzat. Han ikasiko du mundua benetan zer den, ez Hegelen ideietan, errealitate bizituan baizik. Zer diren interes ekonomikoak gatazkan Estatuan, «arrazoi» materiala, ez ideala (burges eta bankari renaniarren interesak, Gobernuaren politika erabakitzen zuten junker eta lurjabe prusiarren interesen aurka); zer den miseria soziala eta «justiziarren» arrazoi bidegabea (herri-lur izandako eta orain jabetasun pribatu bilakatu basoetan egurra lapurtzen zutenentzat lege-eman ziren zigor ertarotarrak), zer den askatasunaren borroka zentsuraren aurka (nobleziak defendatzen zuena, bere pribilegioak mehatxatuak ikusten zituelako prentsa libreaz), etab. Ezker hegeldarreko lankide talde borrokalari pijoa bildu du Marxek *Kazeta Renaniarra*-ren inguruan eta, egin ere, borroka bizia egin du. Askotan lankideon kritika ausartegiak balaztatzen berak ibili beharko du. Ez, bera aski erradikala ez delako. Marxek zentsura lege berria —ezkertiar batzuek txalotua— analisatuz idatzi duen lehen artikulua politiko, ezingo da argitaratu, zentsurak galerez. Arazoa ez da zentsura legea gutxiago edo gehiago liberala izatea; legerik egotea da, idazten du. Marx, eraldatu nahi den Estatuaz, zalantza egiten hasia da. Zalantza egiten, orobat, kritikaz eta kritikaren balioaz Estatu eraldatzeko. Bere filosofia guztiaz (hegelianismo ezkertiarraz) zalantza egiten. Marxen zalantzak eta beldurak ez dira injustifikatuak: 1842ko urrian hartu du Marxek *Kazeta Renaniarra*-ren Zuzendaritza; 1843ko martxoan erredakzioa utzi egin beharko du, eta geroxeago Gobernuak itxi egin du kazeta. «Lurra bera ustelduta dagoen Alemanian ezer egin ezinda», Marx —Gobernuari esker, berak ironizatzen duenez— «libre» geratu da, bere bizitzan kapitulu berri bat hasteko.

Marx garai honetan liberal erradikal bat besterik ez da. (Lankide batzuen ideia komunistak, adibidez, «abstrakzio dogmatikotzat» ezesten ditu). Baina esperientziak eta gogoetak jarrera berri batera ekarri dute bere bidean. Bi puntu bakarrik aipatuko dugu.

1. *Erljioa*: Alemania protestantean («cuius regio, eius religio» printzipioak erabakitzen du erlijioaren arteko lotura) ezker hegeldarrak gehiena erlijio kritika egin du, hori oso zorrotza. D. F. Straussek *Jesusen bizitza* idatzi du (1835), ebangelioen kritika historiko bat: Jesusen historikotasuna bera ukatuz, herri juduaren aspirazio mesianikoen mitologia bezala esplikatu du Testamentu Berria. Izkribua, Unibertsitatean bere profesoretza kosta zaio Straussi ere. Bruno Bauer-ek, *Errebelazioaren historiaren kritika* (1838), *San Joanen historia ebangelikoaren kritika* (1840), etab., liburuekin, Testamentu Zaharra eta Berria, pentsamenduaren eboluzioan bi une ezberdin bezala, eta biak gaur egun pentsamenduan jada gaindituriko faseak bezala, ulertzen ditu. Kristautasunak bere momentua eduki du historian, berari egokitu zaio mundu greko-romatar antzinarra eraldatzea; gaur egun, aldiz, oztopo bat bilakatua dago kontzientziarentzat, aurrerapenarentzat: bera da Erregimen Zaharraren legitimatzaile eta eustaille handiena. Gure egitekoa gaur Estatua eta kontzientziak kristautasunetik askatzea da.

Kritika hauek oraindik hegelianismoan geratzen dira: Hegelen arabera, historia, Ideiaren edo arrazoizkotasunaren garapide progresibo etengabeko eta hedapeneko historia da. Erljioan momentu batean razionalki (sinbolutan) espresatu den Ideia, gero razionalkiago zientzian eta filosofian (kontzeptu estriktotan) espresatzen da; horrela razionaltasun absoluturaino.

Hegelianismo horrentzat, giza pentsamenduak momentu batean mitikoki (mitologia grekoan edo kristauan, adibidez, non jainkoak giza-antzekoak diren, edo Jainkoa gizaki bilakatzen den), h. d., sentigarriro pentsatu duen errealitatearen egiazko egia, irudiaren barnagoan, pentsa-

menu horrek berak gehiago aitzinatu eta gero lortzen duen gogoeta razionalean dago. Hegelianismoak, horrela, erlijioa filosofiara bihurturizten du (zentzumena Ideiara, sinboloak kontzeptuetara): Jainkoa, historian «alienatzen» —bestelako agerkeria batean zertzen eta garatzen— den Ideiara. Feuerbachek sortu du Hegelekin etena. Hegelen filosofia hori azken finean ez da teologia moztortua besterik, protestatuko du L. Feuerbachek. Has gaitezen bada, razionalki, hasieratik, hastapen puntua erabakitzetik: Ideia, hastapendako, ez da ezer, zentzumena da dena; Jainkoa ez da ezer, gizakia da dena. Filosofia ezin da zerutik behera hasi, lurretik eta esperientziatik —zentzuetatik— gora baizik. Feuerbachek Hegel «buruz gora», h. d., hankaz behera, behar duen bezala, ipini gura du. Ez da Jainkoa (Ideia) historia eta gizakitan (errealitatean) alienatzen, baizik gizakia da (errealitatea) alienatzen dena Jainkoan (Ideian). Jainkoa ez da gizakiak egiten duen bere miserien, bere esentziaren kontzientziaren eta hori indibidualki gauzatu ezinaren proiektioa besterik.

Marxek lehenaldi batean interes handienarekin jarraitu ditu «protestantismo liberalaren» erlijio kritikak, horiek baitziren posible ziren kritika politiko sarkorrenak. Zentsurarekin kritika zuzenki politikoa ez zen posible. Horrela, Prusia protestante hertsian, kritika erlijiosoak kritika politikoaren moztortzat balio zuen. Ez al zen azkenean erlijioa, Erregearen jokabide erreazionaria eta bitzita publiko triste gutzia bere horretan zuzen eta ederresten zuena? Gainera —hau filosofikoki inportantea—, Ideiaren garapidearen filosofia hegeliararen, momentu historiko garrantzikoagorik ez dago kontzientziaren eraldakuntzarena baino. Kontzientzia berriak seinatzen du historian aro berria. Beraz, kontzientziaren eraldakuntzan saiatu behar zen. Hori bilatzen zuen erlijioaren kritikak. (Ilustrazioaren antzera, hortaz, berriro).

Eta hortxe ikusten dugu Marxen eboluzio sakonagoa, Hegelengandik urrunduz daramana: kontzientzia eraldatuz ez da mundua eraldatzen. Ilustrazioa ez da aski.

Zerbait gehiago behar da mundua eraldatzeko: praxia. Marx, hegeldar ezkertiarren erlijio kritika sutsu haietan axalkeria, seriotasun falta susmatzen hasi da hortaz.

2. *Estatua*: «Alemaniari dagokionez, erlijioaren kritika funtsean bukatutzat eman behar da, erlijioaren kritika beste kritika ororen aurretiazkotzat jo behar delarik», idazten du 1843/44an. Hori egina dago. Ez da aski ordea. Erlijioaren ikusmoldeetatik kritikoki askatu gabe ez dago kritika sozial eta politiko askerik. Erlijiotik askapena da lehenengo askatasun beharrezkoa izpirituentzat. Baina erlijiotik askatzeak ez gaitu Estatu (burgese)tik askatzen. Hots, helburua Estatu (gizarte) guztiz razionala lortzea da. Bauer-entzat, Estatuan erlijio oro kentzen bada, Estatu razional hutsa geratzen da. Estatu razional hutsean, emantzipatua legoke gizakia. Judua, bere erlijiotik emantzipatu delako, ez da Estatu («kristau»)tik emantzipatu, arrazoitzen du Marxek Bauer-en aurka, bere esperientzia pertsonalak kritikarako ematen dion zorroztasunarekin (*Juduen arazoaz*, 1843). Marx Estatuaren gogoeta kritikoa sakontzen hasi da. Nola lortu Estatuaren razionaltasun osoa? Erlijioa politikoki gaindituz bakarrik ez da hori lortzen, objektatzen du Marxek.

Estatu liberala eta alienazioaren arazoa

Adibidez, gerta daiteke, Estatu batek erlijiorik bate-re ez edukitzea (Estatu laikoa) eta Estatuan hiritar guztiguztiak erlijiodunak izatea, Amerikako EEBBetan ikus daitekeenez, esaterako. Baina erlijioa gizakian aje edo narri (irrazional) bat dela suposatzen badugu, zerbait egon behar du Estatuan, gaitz hori eragiten duena. Bestela esan: Estatuaren emantzipazioa (erlijiotik) ez da gizakia- ren emantzipazioa. (Estatua razionaltzeak ez du gizakia razionaltzen). Erlijioa, ordea, ez da gizakiak egungo gizartean erakusten duen miseria irrazional bakarra.

Feuerbachek eman dio bidea Marxi, Hegelen alienazioaren kontzeptutik askatu eta kontzeptu materialista

batetik abiatuz, Hegel osotik askatzeko eta bere modua aurkitzeko³.

Feuerbachek erlijioaren analisisan erakutsi duena, Marxek Estatuari aplikatu dio. Hegelentzat Estatuaren arrazoimenaren eta moralaren adierazpen gorenena da. Den-dena da gizartean eta historian arrazoien espresioa (familia, instinto sexualen eta gizartearen iraunbeharraren espresio razionala, etab.), eta Estatu konstituzionalean adierazten du gizarteak bere razionaltasun gorenena historian. Estatuan baino ez du aurkitzen gizakiak existentzia librea eta razionala. Gizakia den abereak hainbat modutako premiak ditu, intimoak nahiz publikoak, eta horien ase beharrak, «premien sistemak», gizarte zibila eratzen du (alemanez: «bürgerlich»): familia, lanbide diferenteak, jabego pribatua, merkaturak, etab., gizartearen bizitza ziurtatzea xede duten antolaketak. Baina horiek, berez, egoismoaren erakundeak dira, gizartearen barruan gatazka organizatu eta bideratu egiten dute, erauzi ordez. Gizarte zibilean gatazka basak agintzen du hortaz, gatazka horrek indartzen eta goititzen baitu bizitza. Bizitzaren interesa da gatazka orokorra. Interes partikularren eta klase kontrarioen arteko borrokan gizarte zibila bere burua suntsizetik salbatzen duena Estatuak da bere erakundeekin. Estatuak, gizartearen osatzen duten elementu partikular ezberdinen gainetik, «unibertsaltasuna» da. Gizartean jaiotzak, jabegoak eta ondasunek, sexuak, kulturak, etab., hainbat diferentzia sortzen dute. Estatuak diferentzia horiek denak «politikoki» ezabatu egiten ditu, hiritar denak subirania berdinenaren jabe berdin deklaratu legean... «Baina Estatuak —osteratzen du Marxek— ez du ez aintzat hartzen jabego pribatua, instrukzioa, noren jardun partikularra, bakoitzak bere erara jokatzeko duen boterea». Estatuak —Zuzenbidea— horiei guztiei buruzko arauak eta neurriak betetzerik dago! Beraz, gizarte zibilaren gainetik Estatu «unibertsal» hori, ez da egiaz gizarte zibilaren «gainetikoak», baizik —Feuerbachen Jainkoaren antzera— azpikoaren proiektio bat besterik ez, unibertsaltasunaren (beraz,

neutraltasunaren) ilusio bat, hortxe baita gizakia politikoki alienatzen, erlijiosoki Jainkoan bezala.

Erlijioan —Feuerbachen arabera—, gizakia hain urruti sentitzen da errealitatean bere esentziatik, hain baztertua bere naturatik —espeziearen perfekzioen sumatik—, hain ezin du indibidualki berak eskuratu nortasun hori, Jainkoan proiektatzen baitu esentzia berak galdua. Giza esentziaren bikaintasun guztizkoa, espeziearen perfekzioen suma, gizaki bakoitzari hain arrotza zaigu mundu honetan, Jainkoari egozten diogu. Gizakiaren kreatura da Jainkoa; baina orain, gizakiak bere burua aurkitzeko eta gauzatzeko oztopo berria eta handiena bilakatzen da. Izan ere, gizakiarentzat bere bikaintasunaren ispilu izan ordez, eta —Hobbesen aurka— «gizakiari gizakia jainko» adierazi ordez, Jainkoak gizabanakoa apartatu egiten du bere hurkoagandik, honi ordez Jainkoari begira jartzen du, Jainkoa maita eta zerbitzarazten du lagun hurkoak maitatu ordez. Bere buruaz berriro jabetzeko, bada, eta bere buruarekin batera lagunekin berriro bat egiteko, gizakiak Jainko horrengandik emantzipatu behar du.

Estatuan orobat (Estatu demokratikoan alegia, konstituzionalean), alienatu egin da gizakia, ez salbatu, jarraitzen du Marxek. Hasteko, bi erresumatako izakitan ebakita geratzen da, erlijioan bezalaxe: Jainkoaren haur eta graziaren erresumakoa, batetik, munduko erresuma bekatarikoa bestetik; Estatuaren Zuzenbideko haur zerutarra, batetik (hiritar abstraktua), gizarte zibileko katramiletako haurra bestetik (haragizko gizakia). Graziaren jainkozko erresuman ez dago judu eta grekorik, esklabo eta librerik, arima denak berdin nobleak dira; Estatuaren erresuman ez dago handi eta txikirik, aberats eta pobrerik, hiritar denak berdin askeak dira. (Hiritarra, izan ere, ez da, zinez izan, arima baino ezer gehiago: idealismoaren produktu bat). Feuerbach baitan Jainkoa, gizadi minduaren proiektzioa, «gizatasun beteginaren» espresioa da; Marx baitan Estatu, gizadi katibuaren espresioa, «gizatasun askatuaren» ilusioa. Fikzio bat da Estatu hori guztiona ber-

din dela. Gizaki material erreala Estatuko hiritar idealean alienatzen da. Horrela, gizakiari bere egiazko errealitatea idealarekin estali eta ezkutatuz, Zuzenbidezko Estatu demokratiko burgesa bera bilakatzen da oztopo berri bat eta handiena haren emantzipaziorako.

Kazetako eskarmentuak praktikan behialako lagun hegeldar ezkertiarren «seriotasun faltatik» urrunarazi du Marx. Birpentsatu beharrean dago orain arteko teoria ere ordea. «Iraganaz zalantza posiblez ez badago nondik gazozen, nora jo nahi dugun zehazteko orduan nahasmahas galanta dago», idatzi dio Rugeri 1843ko irailean. «Ez da, erreformatzaileen beren artean sekulako anarkia nagusi dela bakarrik; beharrezkoa da bakoitzak aitortzea, nora joan behar den ez dakiela». Kinka honetan, erasotzen duen mila zalantza artean, Hegelen berrikusketa kritikoki bati sakon heldzea erabaki du, buruan argitasun piska bat lortzeko («Ekonomia politikoaren Kritika», hitzaurrea). Hala ere, lerroz lerro egiten dion kritikarekin batera, Marxek omenaldi dotore bat egin dio Hegel paregabeari. Hegelek irakatsi digu historia gizakiak bere burua egiteko mugimendu dialektikoa bezala ikusten (historia, gizagintza). Mugimendu hori erro-erroan lanarena dela; lana dela gizakiaren esentzia eta historiaren muina eta motorra. Honeraino, Hegel. Mugimendu horren legeak —historiarenak, gizagintzarenak: lanarenak, funtsean— ongi ezagutzea da orain zeregin guztia. Marx lanaren ikerketari lotu zaio, eta Feuerbach alienazioaren laguntzaz jardungo du berriro.

«Ekonomistek» ez bezala —horiek elementu ezberdinak isolatuki (ez dialektikoki) behatzen baitituzte—, Marxek, jabego pribatua, diru gosea, lanaren berezketa, jabegoaren eta kapitalaren berezketa, trukearen eta lehiaren lotura, gizakiaren balioa eta desbaliapena, hots, lanaren sistemako elementu guztien arteko kateapen esentziala atzeman nahi du (*Eskuizkiribuak*, 1844). Gakoa produkzio tresnen jabegoan dago. Handik hara, dialektikoki, langilea, aberastasun gehiago sortu hala bera txiroago bilakatzen dela, aurkitzen dizu; merkaduriak produzituz,

bera bilakatzen dela merkaduria; gauzek zenbat gehiago balio, gizakiak gutxiago balio duela: lanak, merkaduriak produzituz, gizakia produzitzeari laga diola. Gizaki langilea alienaturik dago, esango du Marxek. Produktua bere produzitzaileari arrotza zaio (haren jabea kapitalista da). Baina lana bera da funtsean alienaturik dagoena, jardunaldia bera, kanpotik ezartzen zaizkion baldintzetan burutzen baita, aurrezartzen zaion produktu baterako, etab., hots, ez libre, ez gizatiarki, ez bere buruaren jabe, inoren jabetasun edo propietate balitz bezala baizik. Langilea bere funtzio aberetasunezkoetan sentitzen da libre, h. d., gizaki: jan, edan, ernaldu; eta ez bere funtzio gizatiar propioetan. Aberezkoa gizatiar bihurtzen da; gizatiarra aberezko. Finean, bada, gizakia lanean, erlijioan bezala, arrotza, aurrena bere buruari bihurtzen zaio, eta lagun hurkoari gero. «Gizakia gizakiari arrotz» axioma da sistema ekonomiko honen zutarria. Historiaren esentzia lana izatetik dirua (kapitala) izatera etorri garela, esaeran laburbil daiteke apika. Izan ere, lan baldintza guztien —lanaren berezketaren, antolaketaren, produktuaren banaketaren— eta, beraz, alienazio guztien gakoa jabegoan datza.

Ez dago esaterik, Hegelek ez duela sumatu jabegoaren inportantzia konflikto sozialen iturrian (Rousseauk aski seinalatua zegoena, Marxek baino tonu dramatikoagoetan, edo Platonek berak jada), edo ez dituela aintzat hartu gizarte zibilaren barruko gorabehera eta kontraesan ikaragarri hauek. Oso ongi hauteman ditu, goiz asko, eta ongi esplikatu ditu, bere esplikazio moduan. Gizarte zibilak kontraesan eta gatazka horien beharra du. Estatua, ordea (horien gainetik egonez) kontraesan horietxen kontziliazioa da hain zuzen⁴. Gero, Hegelentzat, (gertatzen) denaren kontzientzia iristea da filosofiaren egitekoa — kontzientzia hartzeak jada egoeraren funtsezko gaindipena erakusten omen baitu. Marxen esanean, aldiz, «orain artean filosofoek mundua esplikatu egin dute: aldatzea da kontua».

Saint-Simonistek «industrialista» (produzitzaille, merkatari, jakintsu, ingeniari, obrero) guztien itun har-

moniko bat eskainiko lukeen Estatu moderno zientifikoan sinesten zuten: Marxek utopiatzat erdeinatu du proiektu hori. Proudhonek, autoritate oro hesitura minimoetan hesitzeko, biolentzia gabeko iraultzaz lortzeko helburu gisa, federazio txiki higikorren sistema demokratiko bat proposatu du, Estatuaren lekuan: utopia, esango du Marxek. 1835-1840an Tocquevilleren *De la démocratie en Amérique* agertu da, egundoko arrakasta publikoarekin segituan: Amerikako eredia analisatuz, demokrazia, nahitaez munduan zabalduz joango den, gizarteko interes eta klase ezberdin kontrarioen harmonizazioa bidera dezakeen sistema eraginkortzat, azaltzen du. Marxentzat ikusmolde hauek guztiak beti axalean —«politikan»— geratzen dira, barneko eta funtsezko arazoari lepotik heltzera iritsi gabe. Marxentzat garbi dago: ez Estatu berria, gizarte berria da, behar dena. Arazoa ez baita, Marxen ustean, politika edo Estatua eraldatzea, gainegiturak (Gobernua, administrazioa), politikaren aurrebaldintza fundamentalak baizik, h. d., gizartea bera, gizartearen moldea zertzen duten oinarriak, ondope ekonomiko-soziala. Estatua ez baita horien proiektzioa («alienazioa») besterik.

Kazeta Renaniar-eko esperientziak eta gogoetak, mailaz maila erradikalduz eraman dute Marx. Erradikalpenak, planteamendu filosofikoaren terminoetatik (alienazioa, etab.) kritika historiko ekonomikoaren molde estriktoetara obligatuko du ondorengo urratsean —filosofia abandonatu gabe horregatik—, Marx osoki bere pentsamendu propioan hor ikusiko baitugu: materialismo historikoan.

Iraultzaren bila

Aldatzeko, zer aldatu nahi den, jakin behar da. Liberalismoak Erregimen Zaharreko Estatua irauli nahi zuen (hala gizartea «libre» uzteko); Marxek, irauli beharra dagoena, gizartea bera dela, ondoriatuko du. Kazetako esperientziak Marxi nahikoa erakutsi dio, burgesiaren intere-

sak, eta burgesiak borrokatzen dituen borroka handiak, aski txiki eta partzialak direla (hau eta hori aldarazi nahi dute Estatuan, baina beren interes partikular batzuk aitzi-narazteko baino ez dira). Intelektual ezkertiarren batzuek proposatzen dituzten «iraultzak» ere, axaleko iraultzak direla, intelektualei berei garrantzizkoak begitantzen zaizkien puntu bat edo bestetakoak, baina ez gizartea errotik aldaraztekoak. Helburua, ordea, Filosofia Alemanaren tradizioan garbi azaldua dago Marxentzat. Arazoa ez da feudalismoaren eta botere absolutuaren Erregimen Zaharrea setatu nahi duten Alemaniako Printzeei Konstituzio demokratiko bat onarraraztea edo ez; ez da Estatu laikoa lortzea: emantzipazioak ez du Estatuarena izan behar (antzinako tradizio irrazionaletatik edo erlijiotik), ez du juduen edo kristauen emantzipazioa izan behar. Askapen osoa eta gizaki osoarena izan behar du (Estatuan eta Estatutik). Gizakia osoki bere buruaren jabe —osoki razionala, beraz— bihurtuko duen emantzipazioa da helburu bete⁵. Gizakia bere buruarekin (razionaltasun osoarekin), edo gizakia gizakiarekin oposatzen duen oro ezabatu edo gaindituko⁶ duena — ohorea («noblezia»), familia, aberria, aipatu ditu Marxek. Horretarako, 1) hori eragiten duen arrazoi funts-funtsezkoa ezagutu beharra dago, errotik erazteko; 2) interes partikular gabeko klase bat behar da, haren borroka —eta iraultza— gizadi osoarena izan dadin, h. d., gizatasunarena, eta unibertsala ondorioz, ez klase baten interes partikularrena. Marxek honez gero interes partikularrik gabeko klase hori, gizadiarekin berdintzen dena, proletargoan ikusten du — gizatasuna (ohorea, familia, aberria) ukaturik dauzkan klasean alegia («kateak besterik gabe zer galdu»), bere interes elementalenak gizatasun hutsarenak direlako; eta gizakiaren emantzipazio totalaren funts-funtsezko eragozpen hura, jabego pribatuan. Hau dena hobeto ikertzera eta sakontzera dedikatuko da Marx gaztea ondorengo periodo erabakiorrean.

1843ko ekainean ezkondu eta, urrian Karl eta Jenny Marx Parisera joan dira bizitzera, lagun batzuen ar-

tean proiektatu duten *Urtekari aleman-frantziarrak* aldizkaria sortzen eta kudeatzen Marxek lana eta bizibidea izateko asmoan. Hogeitabost urte gazte du Marxek. Parisen (milioi bat ingurukoa) 40/50 mila emigrante aleman bizi da orduan⁷, exiliatu politikoak asko edo gehienak, artisauen gehiengoaz beste (7.000tik gora hargin, 4.500 jostun, 4.000 zapatari, etab.) ehundaka baitira medikuak, artistak eta zientifikoak ere. Kolonia biziki aktiboa da politikoki, Alemaniara hainbat idazki eta agitatzaile klandestino bidaltzen duena etengabe. Halako erakundeen artean «Justuen Liga» gailentzen da, komunista, Liga horretako buruzagi baten etxean biziko baita Marx familia Parisen. Parisen Marxek esperientzia berria egin du, proletari militanteara: eta harenganako miresmenik handiena sentitu duen arren, guztiz problematikoak aurkitu ditu mugimenduren bai organizazioa eta bai maila teorikoa. Emigrante alemanekin ezezik, iraultzaile eta sozialista frantsesekin eztabaida eta gogoeta luzeak izan ditu (Proudhonekin, etab.); M. Bakunin eta beste hainbat europar iraultzaile ezagutu du; H. Heinerekin adiskidetu da. Iraultzak porrot egin badu ere, Alemaniaren aldean bestelako esperientzia eta tradizio iraultzailea du Frantziak. Tradizio hori hurbildik ezagutzeaz eta ikertzeaz gain (liburu bat Frantziako Iraultzaz idazteko asmotan ibili da), ekonomisten estudioari lotzen zaio. Aldi berean bere tradizio filosofikoaren (Hegel, Feuerbach) sakonketa kritikoaan jarraitzen du, bera garatzen ari den pentsamendua hegeldar ezkertiarrekiko kontrastean hobeto definituz (edo «ideologia alemanarekiko»): xede honi begiratzen diote, argia ikusiko duen *Urtekarien* zenbaki bakarrean, Marxen artikulua biek. Zenbaki horretan, Marxi asko interesatu zaion Engelsen «Ekonomia nazionalaren kritikarako zirriborroak» artikulua agertu da, «kategoria ekonomikoen kritikarako eskema jeniala» Marxen iritzian. Honela ezagutu dute elkar autore biok 1844ko udan, Marx argitaragabe geratuko diren *Eskuizkribuetan* lanean ari den unean hain zuzen. Marxen pentsabideetan urte labur oparo eta erabakiorra izan da 1844a. 1845eko urtarrilaren 25ean, Guizot, Louis Philippen Atze-

rri-Ministroak, Marxen erbesterapena sinatu du, Prusiako enbasadariak hala eskaturik. Paris utzi eta Marx familia Bruselan jarri da bizitzen. Geroxeago Engels elkartu zaie.

F. Engels gaztea (1820-1895), familia industrial pietista aleman bateko semea, bere formazio profesionala Ingalaterran bukatu eta familiak Manchester-en zeuzkan ehuletegiez eta negozioez oso gazterik kargu egin behar izan baitu, langileria ingelesaren eta hango mugimendu sozialaren ezagutzaile zoli eta eskarmentatua zen ordurako. Bere laguna baino ekintza-gizonagoa beti ere, Marxtarren sostengu ekonomikoa izango da. Marx Ingalaterrako langile erakundeekin harremanetan ipini duena izan da, oroz gain, adiskidetasunaren hasiera honetan. Frantzia edo Alemanian baino hagitz aurreratuagoa baitabil iraultza industrial, ibili ere, Ingalaterran; haietan baino erruz ugariagoa da langileria proletariaren kopurua⁸, hobeto organizatua dago (bere aldizkari eta erakunde publikoekin), lehen garaienak ospatzen ditu jada. Estudio ekonomikoak ere Ingalaterran daude aurreratuena. Engelsek ongi ezagutzen dituzte ekonomista ingelesak, eta harreman estuak dituzte sindikatu ingelesekin, buruzagi kartistekin, sozialistekin (Owenen *New Moral World* egunkarian kolaboratzen du⁹); halaber Londresko emigrante alemanekin harremanetan dago, «Justuen Ligaren» Londresko sekzioarekin bereziki. Bitartean Ligako propagandista eta buruzagi gailenak Londresen baitaude, Parisetik, Suitzatik, Alemaniatik desterratuak. Horregatik, Bruselan elkartu eta berehalaxe, lagun biek bidaia bat egin dute Ingalaterratik, hango mugimendu sozialaren ikuskari, eta hango iraultzaileekin lotura bila.

Izan ere, Marx eta Engelsek «Korrespondentzi Bulego Komunista» bat martxan jarri nahi dute Bruselan, Europa osoan sakabanaturik dauden komite iraultzaileak elkarrekin harremantzeko. Antolaketa mailan, langile erakunde frantsesei eta alemanei, beren antolaketa klandestinoa kritikatzeko diete. Erakunde publiko eta internazional handi bat proiektatzen dute Marx eta Engelsek (erakundeak zer forma izango lukeen zehaztera sartu gabe).

Teoria mailan, behin betirako heldua dela garaia, uste dute, utzi filosofiak, moralinak eta «utopiak» oro, eta langile mugimenduan ideiak garbi uzteko.

Momentu probidentziazkoa izan dela, esan genezake, Marx eta Engels Bruselan elkartu direnekoa. Biak heldutasunera iristen ari diren puntua da, adinean bezala pentsamenduan, bakoitzak bere aldetik egin duen eboluzioaren buruan, eta —Engelsek adieraziko duen legez— biak konklusio berdinetara eta ikuspuntu berera etorriak ziren, bata bestearen independenteki. Biak sasoian eta borrokarako gogoz. Giroak aproposa dirudi beren proiektuentzat. Alemanian uzta katastrofaleko urteak dira bata bestearen segidan (1844-1846); patataren gaitzak (1845-1846), langabeziak, industriaketaren hastapen gogorak, ondoez soziala eta amorrua areagotzen dute. 1844an Sile-siako ehuleak matxinadan altxatu dira, ehuletegi mekani-koetako makinak apurtuz (biziki hunkitua geratu da Marx matxinada —irrazional!— horrekin; Heine poesia batean asaskatu da); langile matxinada gehiagok segitzen du berehala Kolonian, Berlinen... Ingalaterran krisi ekonomikoak errepikatzen ari dira behin eta berriro, berehalako ondorioekin kontinentean («orain arteko denak gainditzen ditu», ohartzen du Engelsek 47ko krisialdian). Sumindura soziala gehituz doa nonahi. Parisen herri go-seak «A bas Louis-Philippe» orruka okindegiak asaltatu ditu («ogiaren matxinada»). «Itxura guztien arabera, proletargoaren iraultza hurbil dago», barruntatzen du Engelsek giroa horizontean (47ko udazkena). Premia larrikoa da, hortaz, borroka erakunde diferenteak agudo antolaketa gotor batez hornitzea eta mugimendu iraultzaileari teoria bat ematea, razionala, kritikoa, errigortsua, iraultzaren zentzu historikoa ezagutzen duena. Izan ere, bi joera zebilen nagusi mugimendu sozialean, eta Marx eta Engelsek biak berdin zapuzten zituzten: joera batek, razionaltasun publikoan (subjektiboan) fidatuz, ideien ederrak berak eta «kolonia komunisten» jarraibide onak, propagandak, iraultzaileen eredu pertsonal zintzoak, etab., luzarora

—inolako indargintzarik erabili gabe— gizartea «konbertitu» edo aldaraziko zutela, espero zuen. Besteak, aldiz, burgesia «gaiztoan» inolako usteonik gabe, boterea hankaz gora bota eta minoria iraultzailea Gubernuratuko zuen putsch biolento batean ikusten zuen iraulbidea, mundu berri bat inauguratzeko. Marx eta Engelsek «Ilustrazioa» bakarrik ez dela aski, azpimarratuko dute, ideia onak eta jarraibideak: biolentziarik gabe ez da mundua aldatuko. Eraldaketa sozialak prozesu historiko lurpetar sakonen emaitza jarraikorrek direla, aldarrikatzen dute bestetik, ez bat-bateko tximistak, inork zeru garbian inprobisatuak, edo abentura baten opariak. Batetik «idealismoarekin» eta bestetik «boluntarismoarekin» polemizatu behar dute Marx eta Engelsek: iraultza kritikarekin eta «Ilustrazioarekin» egin nahi luketen behialako lagun hegeldar ezkertiarrekin eta haien gisako iraultzaile sozial «utopistekin» alegia; eta ekingia iraultzailea historiako lege objektiboen pean ez dagoela uste duten abentureroekin¹⁰.

Oso polemikoak dira aldi honetako Marx eta Engelsen testuak. 1845eko otsailean «Familia santua edo Kritikaren Kritika (Bruno Bauer eta konpainiaren aurka)» sarkastikoa publikatu dute biek, goitik beheraino hegeldar ezkertiarren lepotik isekaz, eta kritika gehiago abisatuz ondorenerako. Udaberrian, gatazkan aktiboki beraiekin parte hartzeko eskatu eta Feuerbachek eskusatuz erantzun duenean, Marxek «Feuerbachi buruz tesiak» paratu ditu derrefente. Baina bien funtsezko postura «Ideologia alemana» gatazkarian azalduko dute astiroago, azkenaldiko filosofia alemana berritsukeria hutsean endekatua dela salatuz (1845eko irailetik 46ko maiatzera idatzia). Ez da hor bukatu bien eraso teorikoa. Beren «Korrespondentzi Bulegoan» kolaborazioa eskaturik, 46ko maiatzean, baietz bai, baina ezetz esan nahi zuten esamoldeekin, erantzun du Proudhonek: Marxek ez dio barkatu, eta haren *Miseriaren filosofia* argitara agertu eta egun gutxira ekingo dio *Filosofiaren miseria* kupidagabeari, Proudhon alde guztietatik txikituta uzteko (47ko urtarrila eta ekaina artean

idatzia). Ideia kristauak sekulako eragina zuten mugimendu sozialistan, Ingalaterran eta Alemanian batez ere, «Justuen Ligan» arena, Weitlingen itzalak bermaturik: influentzia hori zuhurki borrokatzeko, Marxek, «Justuen» New Yorkeko sekzioak Ipar Amerikako emigrante alemanentzat publikatzen zuten aldizkariko artikulua batzuen aurka, idatzi du bere kritika zorrotza («Kriegeren aurka zirkularra», 1846ko maiatza). Londresko sekzioan berehalaxe sentitu dira ondorioak.

«Justuen Liga» edo Itunak¹¹, Alemaniatik ihes egin behar izan duten intelektual, merkataria eta artisau demokratek, batez ere Suitzan eta Paris eta Londresen antolatu dituzten elkarte diferenteak biltzen zituen. «Gizaki guztiak anai-arrebak dira» zen bere goiburua eta, Europako beste langile erakunde nola-hala «sozialista» guztien aldean, bere programa deblauki komunistak berezten zuten. Ondasunen komunismoa eta jabego pribatuaren ukoa arrazoi erlijiosoekin oinarritzen zen (lehen kristautasunak paper handi bat jokatzeko zuten inspirazio honetan). Suitzatik nahiz Parisetik desterratuak, aktibista suharrenak Londresen bilduz joan baitira, Ligak bere zentrala Parisetik hara aldatu du 1846ko urtearen buruan. Londresko sekzioan, ordea, Engelsek itzal handia du.

Berehalaxe hasi dira Londresko Liga eta Bruselako Korrespondentzi Bulegoa bateratzeko tratuak. Batasun hori —ordura arteko Liga eta Bulegoa, biak desagertuz—, «Komunisten Liga» (edo Ituna) izeneko erakunde berrian mamitu da (Marx eta Engels kide direlarik, nahiz buruzagitzan ez dauden), Lehen Kongresu fundatzailea Londresen eginez, eta organo gisa *Aldizkari Komunista* izanzen duela, «herrialde guztietako proletariook, elkar zaitzte» goiburu berriaz. Aldizkari honen zenbaki bat bakarra kaleratuko da, 1847ko irailekoa. Pariseko komiteak eskatuta, Engelsek idearioaren dotrina txiki bat militanteentzat apailatu du, orduan zirkulu sozialistetan ohi zen galde-erantzunezko katixima sinple moduan, «Komunismoaren Printzipioak» bezala ezagutzen dena eta, hein batean,

Manifestuaren aurrettestua kontsidera litekeena. Manifestuak hain zuzen militanteen formaziorako dotrina-sistema sinplista horrekin eten egingo du, dibulgaziozkoa izan arren testu solido bat eskainiz —neurri batean—, dibulgazio seriokoa, buruaz pentsatzekoa eta ez buruz ikastekoa. Manifestua, 1847ko azaroan Bigarren Kongresuak Marx eta Engelsi enkargaturik, horiek prestatu duten Komunisten Ligaren —pentsamendu kolektibo baten— programa da hain zuzen, 1847ko azaroa eta 48ko urtarrila artean idatzi eta otsailean Londresen agertua, autore izenik gabe. Beraz, ez da inoren pentsamenduaren espresio personal bat estriktoki, erakunde baten filosofia nolabait ofizialarena baizik. Hala ere Marxen eboluzioaren emaitza bat eta bilduma bat nabari genezake bertan.

Iraultzaren teoria

Zer da gizakia? Zer da proletargoa? Zer da historia? Manifestuak itaun hauei guztiei erantzun nahi die; eta, horrekin, iraultza zer den, erakutsi gura du. Engelsek azpimarratuko duen legez, berak eta Marxek, hegelianismotik abiatu eta, ikuspegi berri bat, planteamendu berri bat, ireki dute. Marx jadagoneko ez da, lehenago (Marx feuerbachianoa) bezala, gizakiaren esentziatik edo partituko (kontzientziatik, arrazoimenetik), hura historian zer alienazio jasaten dabilen begira. Aldatu egin da ikuspuntua. Gizakia lanak egin du; lanak eratzen du gizartea, lanak darama gora historia. Historia eta gizartea produkzio prozesu gisa ulertu eta, analisisan produktiotik hasten bagara, produkzioaren baldintza errealak aztertzeaz enplegatu beharko dugu aurrena — azpimarratzen zuen jada «Ideologia alemana»k. Hau da orain sistematikoki garatuko den ikuspuntua. Gizakia —alegia, haren moralak, pentsamendua, etab.— egiaz zer den jakiteko, laga filosofiak, erlijioak, gizatasunaren definizioak eta esentziak (ez garamatzate inora, esango du Marxek), eta gizakiaren bere burua osa-

tzeko oinarri eta bilakabide historikoaren fundamentura jo behar dugu: lanera, produkzioa, gizakia horrek berez-ten baitu abereengandik, eta hor egiten baita gizakia giza-ki, bere buruaren jabe. Produkzioaren eta historiaren ana-lisi horretan, gizakia bere harreman sozialen emaitza de-la, deskubrituko dugu. Gizakia izaki produzitzailea da be-re-berez. Bere bizirako beharrezko gaiak produzitzen ditu batik bat: Marxek produkzio prozesu horren eskematxo historiko bat eskaintzen digu, tribu primitiboetatik hasi eta gizarte burgesarainoko eboluzioan. Bigarrenik, ordea, produkzioak bere produkzio baldintza jakinak agintzen ditu: lan bat hamar lagunen artean egin beharrekoa bada, hamar horiek antolatu beharra daukate nola jardun be-ren artean; lana tresna batzuen baliapenez egin beharre-koa bada, erabaki beharra dago tresna haien estatutu so-ziala eta erabilpen baldintzak (jabego pribatua ala kolekti-boa, etab.). Hots, gizakia —produkzio materialean dihar-duena— «harreman sozialen» produzitzailea da berden-boran. Harremanotan erabakitzen dira baten boterea, bes-tearen menpekotasuna, baten lan izpiritual edo burulana (kalkulatu eta gidatu egingo du), bestearen eskulan edo lan materiala. Harremanon arabera taxutzen da gero gi-zartea politikoki, esango du Marxek. Estatua, bereziki, ezin da ulertu harreman haien emaitza gisa baizik. Piska bat gehiegizkatuz esateko (Marxen filosofia ez da mekani-zista, haren esaldi lapidari batzuk zeharo mekanizistak badira ere), «haize-errotak gizarte bat subiranoarekin ematen du, eta bapore-errotak gizarte bat kapitalismo in-dustrialarekin». Eta —hirugarren— bere harreman mol-dea jada nagusi eta morroitan, eukitsu eta ezeukitan, ar-madun eta gabetan, etab., zatibanaturik duen gizarte ho-nek, arian-arian beti bere produkzioan, poesia produzi-tzen du orain, eta erlijioa, artea, filosofia, zientzia, balio moralak. Eta badirudi poetak zerikusirik ez duela meha-tzetan edo fabrikan izerdi-lohitzen den beharginarekin, baina hari fin altzairuzko ezkutu batek lotzen ditu bi-biak. Dena dago denarekin lotuta. Horregatik, gizakiaren ezagutza, epe historiko baten ezagutza bezalaxe, ezin izan

daiteke «osotasun» konplexu baten, denak dena baldintzatan duen sistema dialektikoaren, produkzio batek beste produkzioa eragiten duen gurpilen gurpilaren eza-gutza baino. Produkzio molde diferenteek (hori diferentea baita leku batetik bestera —lurralde bero eta hotzetan, adibidez—, edo aro batetik bestera, tresneriaren perfekzio teknologikoaren arabera, etab.) harreman molde diferenteak sorrarazten dituzte gizartean; moral eta zuzenbide diferenteak, gero: eta geroenean zuzenbideak, moralak, atzera produkzioan eragiten du, eta bera da lehen bere kausa zuenaren kausa. Horrela doa gizakia historian gora, jira eta bira, gaur lanean eta bihar gerran.

Baina —galde lezake irakurleak—, jirabira horietan guztietan, oinarri ekonomikoak ala izpirituak (kontzientziak) determinatzen du «azken instantzian», edo azken finean, historiaren ibilbidea? «Azken instantziarekin» ikuspuntu bat adierazi nahi bada, errealitatearen analisisa edo arazo baten epaiketa hasteko materialista historikoak metodikoki bere abiapuntu fundamentala bezala hautatuko duena, handik aritzeko bere azterketan, orduan aitor daiteke, historiaren ibilbidea —edo aztertzen duen arazo konkretua— behatzeko honen ikuspuntu basiko edo «azken instantzia» hori, «ekonomikoa» edo materialista izango dela zinez, modu arruntean esateko. Hori esan gura du materialismo historikoak. Horrela posizionatzen da bera munduari begira, modu guztiz zilegizkoan. (Ezagutza mailan, «azken instantzia» beti ikuspuntua da). Ohar guztiz orokor bat, beraz, hainbeste tinta alfer isurtarazi duen auzi honetaz: marxismoa mugimenduaren (bilakae-raren) filosofia da; marxismoa ez da izatearen filosofia bat, eta izatearen azken sub-stantearen galdera («azken instantziaren» kuestioa, esanahi honetan) ez zaio interesatzen. Marxismoa horrela hartzen, edo horrela galdekatzten denean, itxuragebetu egiten da hura. Galdera hori metafisikoa edo platonikoa («teologikoa») baita. Egiterik ez dagoena da, hortaz, printzipioz guztiz legitimoa eta, praktikan ere, hainbat eta hainbat eremutan balio biziki

naro eta zabalekoa dena ikuspuntu gisa («azken instantzia» material edo ekonomikoaren hautu metodikoa), tesi metafisiko (antzu) bat bihurtu, absolutu bat, eta «azken instantzia» hori unibertso guztiaren zerizanari eusten dion atlante edo azken nukleo higizina —esentzia— definitibo gisa ulertu, Aristoteleren Causa Prima edo Jainko antzera, edozeren eta guztiaren interpretazioan azken klabea eta fundamentua izateko pretentsioaz, gorabehera politikoen balioespenean bezala poesia liriko baten analisisan. «Azken instantzia» modu absolutu «teologiko» honetan ulertzen denean —interpretazio batzuetan noizpait egin izan den legez—, dialektika desagertu egiten da pentsamendu honetatik eta marxismoaren zentzua guztiz dogmatizatzen da. Hain zuzen, Marxek askatu egin nahi zuen pentsamendua, berriro lotzen da horrela.

Ordea, historia ez du kritikak egiten, esango du Marxek orain, bere iragan baten harribizi damutua diruditen esaldietan. Iraultzak egiten du. Orain badakigu, iraultza ezin izan daitekeela, gogoak ematen digula eta beste gabe egin genezakeen zerbait. (Edo gure indignazio moralak eskatzen duelako, edo ebangelioak agintzen duelako, lehen kristauak ondasunen komunismoa praktikatzen ei zutelako, etab.). Iraultza, produkzioaren eta historiaren «burdinezko legeen» menpe dago. Ez dago lekurik «utopiarentzat» (boluntarismoarentzat).

Are, badakigu orain, konfliktoak ez direla soluzionatzen, haien soluzio razionala kontzientzian lortu dugulako. Soluzioak egin egin behar dira. Eta baldintza objektiboen arabera egin. Kontzientzia, norbere buruaren kontzientzia hau, lagun hurbilenekiko eta naturarekiko harremanetik ernetzen da; eta erne eta garatu hala, jende eta natura haiekiko nire harreman modua aldatuz doa. Kontzientziak historia du, hortaz: gizabanakoak inguruko jendearekin eta naturarekin batera ibiltzen duen historia. Bat da tribu primitibo saldokoi batean hemezortzi urteko neskak edo mutilak duen (auto)kontzientzia, eta beste bat gizarte industrialean duena. Baina gizarte primitiboan ere

denek ez dute kontzientzia berdina. Lan berezketaren arabera, hots, produkzio sisteman okupatzen duten lekuaren —klasearen— arabera, diferentea izanen da hori. Zerk erabakitzen du, ordea, zein leku okupatzen duten batek eta besteak gizartean, azken batean produkzio sisteman? Produkzio-abesekiko baten eta bestearen jabetasun erlazioak, h. d., horien jabe izateak ala ez izateak. Jabea ez denak, lan egin ahal izateko, bere (lan)indarra tresnen jabeari eskura laga beharko baitio. Erlazio hori da klase bat eta bestea berezten dituen ezaugarri errotikoa, beste diferentzia guztien sustraian dagoena. Eta, jakina, tresnak primitibo traktatsak izan, ala errobot modernoak izan, klase egoera eta klaseen arteko harremana ere diferenteak izango dira. Klaseek, eta klaseen arteko erlazioak, historia daukate orobat.

Klasea: honekin materialismo historikoan kontzeptu basiko —eta, egia esan, oso bihurri— bat aipatu dugu. Marxek, gizarteak oro klasetan banaturik daudela, esaten digu. H. d., zapaltzaile eta zapaldutan, elkarri kontrajarriko bi fronteok elkarrekin gerra gutxi-asko agerian edo disimulatuan ari baitira beti. Klaseon borrokari itsasten zaio historiaren joanaira, batzuetan iraultza batez historia iraularaziz, klase biak suntsiaraziz beste batzuetan, giza-diaren pelegrinazioan hark eraten baitu aldian-aldian ageriko bilakabidea eta gizartearen forma. Horrela, bakoitza bere esferari lotua bizi da, bere klaseko interesen umea da. Interes kolektiboa edo «orokorra» (Estatua, Zuzenbidea) interes partikularren gainetik egonez pentsatzen da orduan. Baina ilusio hutsa da, ez dago interes orokorrik, esango du Marxek tesi guziz arriskatu batean. Interes partikularren arteko gerran bizi gara den-denok. Gertatzen dena da, klase dominatzaileak, aldian aldiko «ideologia» dominatzailea berak nagusiarazten duela; eta, ideologia (erlijio, filosofia, propaganda, moral) nagusi horretan, klase dominatzailearen interesak ongi orokorraren edo ongi objektiboaren, arrazoizkoaren itxuraz eder-eder jantzita egoten direla, guztiei horixe sinestaraziz. Alegia, ordena bat gizartean beti dago, eta ordenak beti baditu

abantaila batzuk («guztiak guztiekin gerran» ibiltzearen edo gizarterik ezaren aldean), eta, beraz, denok nahiago dugu ordena kaosa baino: erraza da, horrela, aldi-aldi dagoen ordena funtsean interes orokorrarekin identifikatzen dela, argudiatzea. Baina aldi-aldi hori, salatzeko du Marxek, dagoen ordena, ez da egon beharra dagoena, beti klase bati interesatzen zaion ordena da; eta klase baten interesa da, hori ongi orokorrarekin identifikatzen dela, guztiei sinestaraztea ere. Bakoitzaren kontzientzia, horrela, bere klase egoerak erneazten diona da. Baina, kasu!, zapalduarena kontzientzia birritan zapaldua da, esan genezake: berez, behin, den halako zapalduaren kontzientzia gisa; eta (etsaiarena den) ideologia nagusi, berak inkontzienteki onartuak zapaldua, berriro. Behin kanpotik, bestean bere barrutik, zapaldua. Marxek, bada, ez du kritikaren («Ilustrazioaren») garrantzia batere gutxiesten. (Bakarrik, askoz gutxiago gehi edo askiesten!). Ezin itxaron daiteke proletargoak, klase zapaldua dela eta, mekanikoki, beste gabe, zapaldu-kontzientzia aski buruargia garatuko duenik. «Munduaren» kontzientzia arte-kogabea zalantza gabe bai (feuerbachianoa, sentimentuzkoa), baina bere egoeraren sakoneko arrazoiarena, kausarena, historiarena, ez. Kontzientzia kritiko hau, hots, teoria zientifikoa, ez da ematen egoeraren produktu bere kabuzko, proletargoaren kontzientzia espontaneo bezala. Aitzitik, aurrenik proletargoa bere ilusioetatik eta kontzientzia faltsutik askatu beharra dagoelakoxe, idazten da *Manifestua* (guztia, eta bereziki hirugarren atala). Proletargoak ez dauka bere egoera mingarria, gizakiaren betiko patuaren («beti egon dira esklaboak eta zapalduak!»), edo garai modernoan zitalkeria bereziaren, burgesen txarkeria partikularren, edo arima kristau sofritzailearen kategoria esentzialetan ulertzerik. Orain dagoena ez da orain, eta lehenago, eta Jesukristoren garaian, beti egon den zerbait. Orain dagoena oraintxe dago eta, hori bai, historiaren emaitza da, den produktu historikoa bezala ulertu behar da. Proletargoak, sozialki eta historikoki bere egoera zein den zehatz-mehatz, ikasi behar du. Bere zapalketa-

-egoera espezifikoa, horren kausa espezifikoak. Bere klase egoera espezifikoa, hitz batean.

«Orain arteko gizarte osoaren historia klase arteko borrokaren historia besterik ez da izan», dio Marxen beste esaldi borobil, maiz errepikatzen den batek. Famatua egin da. Esaldi bereziki marxistarik ez da ordea, alafede! Beste milak jakin du hori Marxen aurretik nahiz Marxen ondotik, eta funtsean denok dakigu. Marxek berak ongi daki hori¹². Eta ez da inportantzia gabekoa hemen, hori esaldi marxista espezifikorik ez dela konturatzea. Manifestu hau argitaratzen duen Ligarentzat guztiz inportantea baita behin eta berriro azpimarratzea, beraiek (komunistek) ez dutela, beste mugimendu iraultzaile proletari ala demokratikoen aldean, inolako printzipio espezifikorik, berezirik proklamatu nahi. Ez dira eta ez dute izan nahi «beste» mugimendu bat. Eta, beraz, esaldi horrek, propioki *Manifestua* denaren lehenengo esaldiak, arestiko ekonomistek (burgesek) bezala mugimendu sozialek oro tenore hartan jada onartuaren finkapena besterik ez du izan nahi —abiatzeko—, jokoan sartzen diren «guztiek onarturiko» tesi arrunta: marxista espezifikoa, jarraian egiten den horren garapena izango da. «Guztiok onartzen dugu historian klase borroka dagoena: azter dezagun, orduan, gure egoera klase borroka terminotan, ea zer ateratzen zaigun». Hori da *Manifestua*-k egin nahi duena. Klase borrokak historia osoa betetzen duena, ezaguna da, hori da Marx aurreko ekonomisten konklusioa; Marxentzat, abiapuntua besterik ez da hori.

Horrela azterturik, burgesia ez zaigu jendetzar zapaltzaile dirugose bezala agertuko, eta proletargoa ez biktima errukarri legez. Biak historiako faktoreak dira, bakoitza bere egitekoaz. Proletargoak pairatzen dituen pena eta «injustizia» guztiak, osotasun handiago baten parte dira, horrelaxe gertatu beharra daukatenak eta, hein horretan, «ondo daudenak» (razionalak direnak). Alegia, ez dira arazo moral bat. Bere «krudelkeria» guztiaz, burgesak ez du bere eginbeharra txit positiboki bete baizik egiten. Marxek, orain arte historian egon den indarrak positiboe-

na dela burgesia, erakutsiko digu. Eta ez du lotsarik, burgesiari sekula abestu zaion laudoriorik bikainena berak abesteko. Bakarrik, burgesia goititu zuen legeak berak —esango digu—, orain haren gairak agintzen du —nahitaez. Hau da marxista espezifikoa, materialismo historikoa, historian agintzen duten legeen zientzia. Historia osoarena dela esaten zaigun lege ardatzezko hori, xeheki *Manifestua*-k ez du orainaldian —historiaren fase kapitalistan— baino azalduko. Honen arabera, historiaren mugimenduen legeak dioena da, mugimendu hori eragin daragiena bien artean kontraesana dela elkarrekin, alde batetik ondasunen ekoizpen geroz eta efikazagoa ahalbidetzen duten produkzio indarren (tresnen, eskuen, jakintza pilatuaren, etab.), horien baliapenak geroz eta emaitzen sozializazio handiagoa galdatzen baitu, eta bestetik produkzio harreman edo baldintzen, hots, klaseen arteko egoeraren, artean (hau determinatzen duena produkzio indarren jabetza pribatua izaki, produzituriko ondasunen sozializazio eta jabetza berak baldintzatzen baitu orain arteko gizarte guztietan). Lege historiko orokor hau gero produkzio molde edo etapa bakoitzeko sistemaren lege konkretu anitzetan, gaur egun ekonomia kapitalistaren lege handi eta txiki ugarietan, gorpuzten da. Lege hauek zehazteko eta ikertzeko Marxen ahalegina ez da *Manifestua*-n bukatu; eta ez, aitor genezake, Marxen bizitzarekin ere.

Marxen eboluzioa, bere objektua geroz eta estuago determinatu gura duen pentsamenduen eboluzio sutsu eta une berean estriktoa da. Mugimendu historiko sozialaren gakoa ekonomian dago, hori da Marxen pentsamenduen aurreneko konkista, ikusi duguna. Gero, historikari eta analista gisa (Marxek fazeta anitz du, modu anitz eta alde anitzetatik atakatu baitio bere objektuari), klase arteko gorabeheren ikerketa xehe batzuetan enplegatu da, 1849-1850 aldera: «Klase borrokak Frantzia 1848tik 1850era» idatzi du, eta «Louis Bonaparteren Brumairearen hamazortzia», M. Onaindiak euskaratua dagoe-na (Lur, 1973). Baina gizartean interes ekonomikoek

agintzen dutela, edo mugimendu historikoa ekonomiko-ki determinatua dagoela esatea, ez da aski. Zernola dago mugimendu ekonomikoa bera determinatua? Hori da azkenean auziaren muin-muina. 1851tik aurrera Marx «ekonomia politikoaren kritikan» murgildu da osoki. Ikerketa eskerga horren emaitza izango da Marxen pentsamendua-ren obra nagusia, *Das Kapital*, 1867, Marxek lehenengo bolumena bakarrik publikatuko duena, beste biak Engel-sek postumo argitarako dituelarik (1885, 1894).

Azken ohartxoak irakurketa historiko baterako

Elementala da gogoratzea, bilakaera historikoaren teoria bat eskaintzen duen testu hau, bilakaera historikoaren produktu bat dela bera ere. Ez zen logikoa izango, beste guztiak beraren arabera izan beharra daukana, bera ez izatea. (Are, obra gutxi egongo da, koiuntura historikoari hau baino lotuagoa). Testu honen aurretik Hegel, materialista frantsesak, ekonomista ingelesak, pentsatzen badi-tugu, Marxen planteamenduaren berritasuna benetan itzela da. Hala ere, testu hau idatzi duenean, Marxek ezin ezagutu zituen —oraindik ez baitziren gertatu—, XIX. mendean bertan berehalaxe biziki garatuko diren antropologia, soziologia, historia, etab. (ezin du ezagutu Darwin, esaterako, haren *On the origin of species* 1859koa da eta). Horiek ez baitute gizakiaz, gizarteen forma eta ebolu-zioez, etab., gure jakite multzoa izugarri handitu baka-rrik egin, baizik analisi metodoak leundu eta ikuspegia egokiagotu batez ere — gure mentalitatea eta begikera al-darazi. Zer esanik ez dago, ikerketa ekonomikoek ere bide handia egin dutela harrez gero.

Lau ataletan zatitzen da *Manifestua*:

1. *Burgesak eta proletarioak*: historia osoa klase borro-karen historia dela suposatuz, egungo klase borroka non-dik sortua den eta zertan datzan aztertzen du, burgesia zer

den bereziki (klase dominatzailea egungo produkzio moldean). Nola ezin duen existitu etengabe irauli gabe produkzio tresnak, beraz produkzio baldintzak, ondorioz harreman sozialen multzo osoa. Burgesia nagusitzeko faktoreak izan direnak, bera suntsitzekoak nola diren. Iraultza-zen ezinbestekotasuna erakustea da atal honen helburua.

2. *Proletarioak eta komunistak*: atal honek Komunisten Ligari buruz «besteek» —burges demokratiko (agian iraultzaile)ek¹³ nahiz beste langile erakundeek— izan ditzaketen susmo txarrei begiratzen die. Proletargo osoari buruz, komunisten posizio irekia adierazten du. Komunistak ez dira Alderdi bat (beste Alderdi edo erakunde batzuekin lehian), ez dute mundu-ikuskeria edo filosofia, printzipio partikularrik: proletargoari bere egoera objektiboa eta esanahi historikoa zein den adierazi nahi diote soil. (Marx eta Engelsentzat hori ez da «printzipio bereziak» edukitzea: ebidentetzat ematen dute, arazoa sakon aztertu duen edozeinentzat. Ez da uste bat. Errealitatea da, zientzia). Demokrata burgesen objektioetatik defendatzekoan (komunistek familia desegin nahi dutela, aberria ukatzen dutela, etab.), atakatuz defendatzen da: hori dena zinez egin, burgesia da egiten duena. Aitzitik, komunistek nahi dutena ez da ezer positiborik hondatzea —familia, morala, egia eternoak—, orain arteko historia guztia gaingituko duen iraultza positiboa baino, gizatasuneko elementu haiek guztiak, positiboak diren neurrian, betegintzarrerera bultzatuz. (Ez du asko zehazten, iraultzak orain arteko mundutik zer salbatuko lukeen). Horretarako beharko den proletargoaren dominazio politikoaren neurri batzuk aipatzen dira, horiek ere asko xehatu gabe.

3. *Literatura sozialista eta komunista*: Ligako komunisten eta garaian komunista edo sozialista bezala agertzen ziren besteen, edo sozialismo historikoen artean da goen diferentzia markatzen da. Funtsean, besteok ez direla egiaz komunistak, esaten da, klase interes partikularren batzuen espresioak baizik: zehazkiago, edo iraultzailea ez den klaseren batenak, edo egiaz iraultzailea izateko orain-

dik heldutasunik ez duen, eta beraz modu utopiko eta moralizante batean bakarrik iraultzailea den klaseren batenak. Horrela, a) sozialismo erreakzionariak (sozialismo feudala, burges-txikia, «egiazko» sozialismo alemana), b) sozialismo burges edo kontserbatzailea, eta c) sozialismo edo komunismo utopikoak, berezten dira.

4. *Komunisten jarrera oposizioko Alderdi ezberdinekiko.*

Azken atal horrek iraultza burges bat iragartzen du Alemanian berehala. Benetan, testuak apenas izan zuen aurretik ateratzeko astirik, argitalpenarekin ia batera «Otsaileko iraultzak» eztanda egin zuenean Parisen (horri eskerrak, martxoan Gobernuak Belgikatik kanporatu duenean, Marxek posible izango du II. Errepublikako Parisera joatea) eta «Martxoko iraultzak» Alemania eta Austrian, une bereko Hungariaren, Bohemiaren eta Lonbardia-Veneziaren erreboltarekin Inperio austriarraren aurka. Erteuropa osoa iraultza sutan bat-batean. Apirilean Marx eta Engelsek Kolonian *Kazeta Renaniar Berria* sortu eta ahalegin guztiarekin kanpainari ekin diote. Benetan, iraultza handiak etorria zirudien. Baina 49ko maiatzean, aldizkaria debekatua, Marxek Parisera ihes egingo du; Gobernu berriak han egoitza ukaturik, ordea, Londresera jo beharko du, han egoteko exilioan hil arte. Engels, Hegoaldeko Alemanian armetan jaiki iraultzaileekin elkartu da, amore eman ezinda azkenera arte. Gero, Suitzatik zehar, Ingalaterrara ihes egin beharko du berak ere.

Gorabehera hauekin guztiarekin, *Manifestua*, agertu denean, inor akordatu ere gabe pasa dela, beharbada esan beharrik ez da egongo. Gaur, aldiz, munduan hizkuntza gehienetara itzuliriko testua bera dela, irakurtzen da, eta kontu ezin ahala edizio izan du mundu osoan. Euskaraz ere izan ditu itzulpen eta edizio batzuk: *Komunista Alderdiaren Agiria*, Paris 1971, izan da lehena, itzultzailearen izenik gabe; bigarren argitalpena ere «klandestino» eta anonimoa izan da, *Alderdi Komunistaren Manifestua*, Baiona 1974; azkenik *Alderdi Komunistaren Manifestua — Manifesto del Partido Comunista*, Donostia 1980, Xabier Kin-

tanaren itzulpena dela adieraziz, Lur Argitaletxeak emana, oraingo edizio honetan jasotzen dugun testua, autorearen azken orduko ukitu batzuekin, eta Mario Onaindiaren orduko hitzaurre interesgarria orain epilogora pasata. Gure eskerrona biei lankidetzaz eskuzabalagatik.

Azken ohar txiki bat, autoreaz eta izenburuz: *Manifestua*, Komunisten Ligaren Bigarren Kongresuak Engels eta Marxi enkargaturik, Engelsen apunte eta materialen gainean Marxek idatzitako du. Beraz, testua propioki Marxena da. Hala ere bi autoreen izenaz ezagutzen da eta argitaratzen da, 1872an beraiek egin duten bezala. Aurreneko edizioa Londresen izan du, 1848ko otsailean, alemanez, anonimoki eta *Alderdi Komunistaren Manifestua* izenburuz. Autoreen izenak estreina *The Red Republican*-ek aipatu ditu, aldizkari horrek 1850ean publikatu duen Manifestuaren itzulpen ingelesean. Izenburuko «Alderdiaren» adiera, ez Alderdiak egun daukana eta ezta garai hartan arrunt zuena ere, ez da; eta askoz gutxiago, gero Leninek emango diona. Esan liteke, justu guretzat hitzak esan nahi duenaren kontrarioa adierazi gura duela. Alderdi bat ez, baino joera bat edo inspirazio bat, korronte bat adinatsua, uler genezake. Marx gaztearen testuetan maiz agertzen da «Alderdi» («Partei») hitza esanahi lazo honekin, inoiz klase sozial bati, inoiz konfesio edo Eliza bati, intelektuaren edo filosofoen «Alderdiari», etab., aplikatua: arazo bat ikusteko moduan «Alderdi» diferentek daude (politikoena, intelektuala; Gobernuarena, Elizarena), etab. Beharbada horregatik, Alderdi komunista edo sozialdemokrata konkretuak sortzen hasi direnean Estatu ezberdinetan, Marx eta Engelsek 1872an beraiek prestatu eta bien izenekin alemanez argitara duten edizioan, beste ukitu txiki batzuen artean testuan, titulua aldatu dute, «Manifestu Komunista» soil utziz¹⁴. «Alderdiak» titulu honetan duen esanahiaren interpretazio autorizatua hori baita.

Oharrak

1. «Profezi-liburu zahar batean irakurria», ik. *Euskal Harria*, 1967. Profezi-liburu zahar hori San Mateoren ebangelioa (2, 6) besterik ez da noski.
2. Maiz kritikatu zaiona da Marxi nazio-arazoaren ulerpen falta. Bera marxista izan arren, F. Châtelet kupida gabea da puntu honetan: «Cette cécité partielle à la question nationale ou cette volonté de la tenir pour un facteur secondaire —pour ne pas dire: perturbant— est peut-être une des insuffisances foncières du marxisme de Marx, dont (barnagoan beharbada hau izan daiteke Châteleten kritikaren arrazoia) s'est abondamment servi le marxisme soviétique, singulièrement stalinien, pour légitimer, sous le couvert de l'internationalisme, son nationalisme de puissance». Ik. MARX-ENGELS, *Manifeste du Parti Communiste*, Bordas, Paris 1986, 162-163. Pierre Vilar, aitzitik, Marx kritika honetatik defendatzen saiatu da. Denok meditatzen du gu bakoitzak bere esperientzia, eta Marxek, berak Alemanian eta Belgikan ikusi duen nazio-arazoaren meditazioa egin du funtsean. [Belgika, Austriako probintzia, Frantziak 1794an okupatu eta anexatu egin du; Vienako Kongresuak (1815) Herbeheretako erresumari eman dio; iparralde protestanteko lurraldeek baino biztanleria handiagoaz eta ekonomia bortitzagoaz, hegoaldea laster kontra jarri zaio, eta 1830ean liberalen eta katolikoek elkartasunak Belgika independente deklaratu du. *Manifestu Komunista* idatzi duenean Marx Belgikan bizi da, desterraturik, 1845az gero]. Dena dela, Marxek bere kondizio sozialengatik (eta pertsonalengatik ere agian), nazio-arazoari ez diola behar besteko jaramonik egin, egia da apika. Berak bere «deskubrimendu» handiaren borroka egin du, buru-belarri borroka horretan ahaleginduz. Egiterik ez dagoena da, guk, beste batek bere esperientziatik mediatu duena, geure esperientzia mediatu gabe, kopia eta dogmatizatea. Gure esperientzia mediatzea geuri dagokigu: beste guztiak laguntza eman diezagukete gehienez ere. Horretarako, ordea, beste guztiak laguntza bezala hartu behar ditugu, ez egia eta zuzentasuna errebelatzen dituzten guru bezala.
3. Alienazioaren kontzeptua txit nahasia da. Nahasia, hitz bakarrarekin bizpahiru hitz aleman diferente itzuli ohi delako: «Entfremdung», arrotzea, estraino bihurtzea; «Entzweiung», erdibitzea, banatzea; «Enttäusserung», besarterentzea (saltzea, adibidez), edo zerbaiti uko egitea, uztea — eta termino hauek guztiak historia nahasia dutelako filosofian, Hegelez gero batik bat. Alienazioarekin funtsean kontzientziako fenomeno bat adierazi nahi da: kontzientzia da bere buruarekiko erdibitzen eta arrotzen dena, etc. Alabaina, kontzientzia ere errealitatea da, eta erdibitze/arrotzearen eredu erabil daiteke errealitatearen bere osoan interpretaziorako eskema gisa ere, eta horrela kontsidero epistemikoak eta ontologikoak paralelo joaten dira. Ik. Pako Garmendiaren artikulua «Alienazioa», in: *Filosofia/1. Hiztegia*, UZEI/ELKAR 1987, 44-45.
4. Hegelen ustean, gizarte zibileko kontraesanei berez bezalatsu jarraitzen zaio Estatu (razional suposatu)ak haiei arrazoizko irtenbidea ematea. Alegia, Hegelen ikuspidean Estatu —administrazioa— ez baita gizarte zibileko parte interesatua, konfliktoa egonez gero irtenbidea bilatzea, eta hark erabakitako irtenbidea inpartziala eta arrazoizkoa izatea, berez datorrena da. E. Weilek ongi ohartarazten du, hortaz: «Il s'ensuit que l'un des problèmes brûlants de l'époque contemporaine n'est pas vu par Hegel: à savoir la possibilité donnée à l'administration de faire cause commune avec une des classes sociales en conflit. Le conflit même, il l'a vu; il ne lui a pas attribué l'impor-

tance qu'il devait prendre très rapidement par la lutte pour l'État (non seulement: dans l'État)». Hegelek ez bezala, Marxek aitiztik «ne croit pas à la bonne volonté de l'administration ni à son intelligence: là où Hegel avait vu un problème pour l'administration, Marx voit une lutte entre l'administration en place et la classe opprimée (terme hégélien aussi bien que marxiste); où Hegel se rapporte à l'intérêt bien compris de l'État, Marx ne fait confiance qu'à la révolte de ceux qui n'ont plus ni famille, ni morale, ni honneur, ni patrie». Irakurleak aisa ezagutuko zuenez, azken hitzotan *Manifestua* gogoratzen da. Ik. WEIL, E., *Hegel et l'État*, Paris 1985, 107-108, «Marx et la Philosophie du Droit» eraskinean.

5. Inspirazio filosofiko, eta bereziki hegeldarreko, planteamoldeotan (Marxenean ere), kontuan eduki behar da, beti ere gizarte osoki razionala dela guztion ideala. (Eta kontu eduki orobat, razionaltasunaren XIX. mendeko kontzeptua dela beraiena, agian gaur estutxoa juzgatuko genukeena). Historia razionala da eta razionaltasun osoa da historiaren helburua. Ez, ostera: historia morala da —edo: morala izan behar luke, etab.— eta moraltasun osoa da helburua, edo holako «utopiarik». Alegia, ideal etiko humanista edo ebangeliko batzuen izenean borrokatzen ziren beste borrokatalde sozialen aurka («sozialismo utopikoa» iritziko dio Marxek sozialismo moralari motibatatu horri, motibazio moralak ez askietsiz), Marxek sozialismoaren behar objektiboa arrazoi historiko zientifiko hutsetan datzala, oinarritu gurako du. Arrazoi historiko edo beharrezkotasunaren, zientifikotasunaren ardatza deskubritu duelakoan, Marxek, hein batean aldebakarkiegi (ez, alegia, gehiegixokeria «ekonomizista» batzuk gabe) eta maiz gozotasun askorik gabe jokatu du bai filosofo hegeldar edo «idealistekin» eta bai borrokala-gun «utopikoekin», h. d., berak, bere deskubrimenduaren sutan (balio ukaezinezkoa hori) halakotzat jo dituenekin. Deskubrimendu handiek polemika ez bete oso justuen bidez bakarrik lortzen dute gizartean ezartzea.
6. Gainditu ez da noski ezabatu. Burgesia da ohorea, familia, aberria ezabatu egiten dituen, gainditu ordez [berdintsu «progre» batzuek, ohorea, familia, aberria berak «gainditzin» badituzte, haiek sor ditzaketen oposizioak gainditu beharrean), eta elkarte anonimoan jabegoa «gainditu» egiten duena, ezabatu ordez.
7. A. Cornuk ehun mila aleman kalkulatu du (beraz, Pariseko biztanleen %10a!), baina suitzar eta alsaziarrak alemantzat hartuz omen da hori. Hiritar alemanena ez, baina hizkuntza alemanekoena izanda ere, kopuru inportantea da hori eta *Urtekarria* ateratzeko Paris zergatik hautatu den, esplikatu du.
8. Edonola ere, Ingalaterrak 1841ean ez zuen kontatzen 3,8 milioi langile industrial besterik (biztanleria aktiboaren % 34); Frantziak ez zuen erdia izango, eta Alemaniak apenas zuen errigortsuki proletargoa deitezekorik, artisautza indartsu bat baizik, egunean egunean merkatarien eskuanago geratuz zihoana. Beraz, funtsean nekazaria den eta oraindik Erregimen Zaharreko aurpegia erakusten duen Europa batean gaude (ikustea dago garaiko jantziak, adibidez), ehundaka urtetan egonean egon eta orain bat-batean industriaketak gogor astindu eta eraldaketa bizi-bizian sarrarazi duena ordea, geroz eta abiada handiagoan jarraituko duen transformazio prozesuan gaur arte: transformazio mugimendu hori da eta horren legeak Marx eta Engelsen ikerketa goiztiar batez —analistak baitira, ez profetak— argitzea saiatu dutena, momentuaren analisi estriktoa eta historiaren filosofia orokor bat bilbatuz.

9. R. Owen (1771-1858), familia xumean sortua, industrial handia izatera heldua, lehenengo erreforma sozialak berak ezarri ditu bere lantegietan: laneguna hamar ordu eta erdira mugatu (lanegun normala 14-16 ordukoa zen), hamar urteik beherako haurren lana debekatu, etab., horrela produktibitatea goratzea lortuz, pronostikoen aurka. Berak sortu ditu haur txikientzako lehenengo eskolak Ingalaterran; orobat kontsumo kooperatibak langileentzako (produktzio kostuen prezioetan), etab. Sozialismo ingelesaren sortzaileetako zatik kontsideratua dago, kooperatibismoaren pionero nagusietakoa orobat. «Sozialismo/sozialista» hitza berak asmatua da. Bere oinarritzko ideia, langileen emantzipazioa langileek berek bakarrik lor dezaketela, izan da.
10. Marxismoaren barruan bada bi tendentzia elkarrekin teinkan (marxismo be-
roa eta hotza, deitu zaie), kontzientziaren eta ekintzaren garrantzia aldarrikatzen duena bata (beraz, biolentzia, iraultza), historiako lege burdinezkoen «determinismoa» nabarmentzen duena bestea (prozesua, eboluzioa). Badirudi, bere teinka horrekin, edo bere «kontraesan» edo «ekiboko» horrekin —denetara kalifikatu izan baita— hartu behar dela marxismoa (harmonizatu edo «soluzionatu» nahi izan duten saioek, dogmatismoan bukatu dute), horregatik eskandalizatu gabe: Osotasuna (beraz, guztiaren ordena unibertuala edo legea eta zatien kontingentzia, gizakiaren askatasuna bereziki) esplikatzen nahi izan duten filosofia guztiena baita funtsean arazoa. Marxismoak ez dauka zergatik sistema definitibo bat izan, edo halakotzat itxi-itxita zergatik egon. Hala ere, logikoki hor problema bat ikusteari ez dago zergatik utzi (dogmatismoaren beste forma bat hori izan daiteke), soluziorik ez ikusi arren.
11. «Bund der Gerechten» (1837-1847)— «Bund der Kommunisten» gero (1847-1852).
12. J. Weydemeyeri gutunean (1852ko martxoa) hala idatzi du: «Niri dagokidanez, ez da niri, zeini dagokion, ez klase sozialen existentziaren eta ez haien arteko borrokaren deskubrimenduaren meritua. Nik baino askoz lehenago historilari burgesek deskribatua zuten klaseen borroka honen eboluzio historikoa, eta ekonomista burgesek haren anatomia ekonomikoa aztertua zuten».
13. Marxek, komunisten beldur edo mesfida zer izanik ez daukatela, konbentzitu nahi ditu liberalak. Eztabaidagai larri bat, hain zuzen, komunistek «iraultzaile» demokratiko (burges)ekin harremanik eta lankidetzarik izan ala ez, izan da garai honetan. Eztabaidagai gogorra izaten jarraitu du 48ko iraultzak porrot egin ostean.
14. Idazkiarentzat pentsatutako jatorrizko titulua *Manifestu komunista* izan zen itxura guztiz. Hala irakurtzen da 1847ko azaroaren 23/24ko Engelsen gutun batean Marxi (honek 47ko abenduaren azken egunetan eta 48ko urtarrilaren lehenetan burutu bide du testuaren azken idazketa): «Pentsa ezazu piska bat fede aitortzaren hori. Uste dut hobe dela katixima tankera uztea eta foiletoa Manifestu komunista titulatzeara...». Jarraian Engelsek berak arin-arin zirriborraturiko Manifestuaren eskema azaltzen dio. Baina komunistak era askotakoak zebiltzan bazterretan tenore hartan, Manifestuak bere azken orrietan erakusten digunez, eta testu honek haietako batzuekiko diferentziak markatu behar zituen, hain zuzen; hots, Ligako komunista tipoaren pentsamendu edo «Alderdiaren» («sozialismo zientifikoa») aldarrikapena izan behar zuten Manifestuak. Zergatik Manifestu komunista deritzen, ez sozialista, beharbada egokiagoa, Engelsek 1890ko edizio alemaneko Manifestuaren hitzaurrean erantzun du: alegia, 1847an sozialista izendapena Ingalaterran owenistentzat eta Frantzian fourieristentzat erabiltzen zela arrunki, eta haiekiko garbi berezterren komunista hobetsi zen.

Bibliografia

- ANDREAS, B., *Le Manifeste communiste de Marx et Engels. Histoire et bibliographie, 1848-1918*, Feltrinelli, Milan 1963.
- BERLIN, *Karl Marx*, Alianza, Madril 1983.
- GARATE, G., *Marxen marxismoa*, Mensajero, Bilbo 1971.
- MARX-ENGELS, «Manifest der Kommunistischen Partei», in: *Marx-Engels Werke*, 4. bol., Dietz, Berlin 1959.
- MARX-ENGELS, *Manifeste du Parti Communiste*, Présentation et Commentaire par F. Châtelet, Bordas, Paris 1986.
- SUDUPE, J., *Marx (1818-1883). Teoria eta Politika*, Bizkai-ko Aurrezki Kutxa/Euskaltzaindia, Bilbo 1984.